

Musika Hamabostaldia

kritika ♦ GIANLUCA CASCIOLI

Italiako kemena

Piano Jolea: Gianluca Cascioli. **Obrak:** Beethovenen 3. Sonata op. 2, Brahmsen 4 Balada op. 10, Debussyren 3 Preludio, Bartoken Suite op. 14, Prokofieven Sarkasmoak Op. 17. **Non:** Victoria Eugenia antzokian. **Noiz:** Abuztuaren 20an.

AZKEN aldi honetan asko irakurri dugu prentsa espezializatuan Gianluca Cascioli pianojole italiar gazte honi buruz. Hogei urte egin gabe, badu curriculum sendo bat: nazioarteko sari bat, disketxe garrantzitsu batekin grabaketak, eta Maurizio Pollini bezalako artisten babes. Ez da txorakeria. Eta Musika Hamabostaldiak eman digu aukera jaio berria den fenomeno hau ezagutzeko.

Errezitaldia entzun ondoren esan behar da oso pianojole ona dela, zalantzarik gabe. Baina XXI. mendeko figura bat izateko bere jotzeko eraren alderdi batzuk borobildu edo findu egin behar ditu; bere nerbio musikalak ondo bideratu behar du erreferentziazko interpretazioak burutzeko. Eta munduko dohain guztiak ditu hori lortzeko, joan den ostira-lean frogatu zuen bezala.

Beethovenen 3. Sonata-ekin hasi zen kontzertua. Cascioli gaztea saiatu zen obra honen lau mugimenduei berezko estilo bat ematen, soinu efektu gogorrak bilatuz. Forte zakar samarrak eta gutxi zaindutako bukaera-erantsiak ugaritu egin ziren. Aldi berean, haragi gutxiko kantabileak atera ziren pianotik, hain soinu meheko pianissimoak egin zituen. Oreka pixka bat falta zitzaion, berez horren arkitectura purua duen obra baten xarma minimalista

adierazteko. Hala ere, momentu ederrak ere izan ziren. Adibidez, 3. denbora Scherzo-a garbi eta indartsu atera zen, erromantizismo puntu batekin baina ondo eraikita.

Jarraian Brahmsen 4 Baladak jo zituen Gianluca Casciolik. Pianojole italiarraren pertsonalitatea hobeto moldatu zen Brahmsen atmosfera poetikoarekin, lehen garai-ko Beethovenen klasizismoarekin baino. Lehenengo balada izan zen agian makaleana, esaldien arteko arnas

Bere saltsan

■ ■ ■ Errezitaldiaren

2. zatian beste Gascioli bat topatu genuen. Askoz gusturago, bere saltsan. Bere teknika eta izaera ezin hobeki egokitzen dira XX. mendeko musikara. Eta berak badaki hori

hartzeak eskasak izan baitziren, baina hiru hurrengo piezetan bere atake seguru eta koloretsua luzitu zuen, ideia musikal garbiak dituela frogatuz. Ondo azaldu zuen Casciolik pieza hauei darien mundu goibel eta batzuetan heroikoa, soinu borobil batekin, batez ere agudoetan, ederki azpimarratuz plano sonoroak eta — Beethovenen kasuan ez

bezala— ondo kontrolatutako pianissimoekin.

Bigarren Cascioli hobeto

Errezitaldiaren 2. zatian beste Cascioli bat topatu genuen. Askoz gusturago erreperorioarekin, bere saltsan. Bere teknika eta izaera ezin hobeki egokitzen dira XX. mendeko musikara. Eta berak badaki hori.

Debussyren 3 Preludioetan inpresionismoaren kontzeptu garbi bat adierazi zuen pianojoleak. «La Cathédrale engloutie» preludioan soinu inguratzaile eta erakargarri bat lortu zuen, pedalaren gehiegikerietan erori gabe, eta «Minstrels» deiturikoa erritmoz eta bizitasunez beterik atera zen bere behatzetatik.

Bartóken Suite op. 14 izan zen errezitalaren momentu gorena beharbada. Interpretazio nerbioduna eta ausardiaz betea, pultsazio uniforme eta paleta dinamiko aberatsa izan ziren bere ezaugarri nagusiak, nahiz eta batzuetan garbitasuna galdu abiadurarengatik.

Prokofieven Sarkasmoak op. 17 maila berean jo zituen Casciolik. Asmatu zuen Prokofievek behar duen soinu gardenarekin, eta kontraste zoragarriak atera zitzaizkion. Azkeneko mugimenduan, Precipitosissimo-an, bere jotzeko era kementsua luzitu zuen, aparteko amaiera emanetz kontzertuari. Propina gisa, Liszten 2. Legenda jo zuen: «San Frantzisko Paulakoa olatu gainean ibiliz». Bikaina, besterik gabe.

.....**Montserrat Auzmendi del Solar**



Jose Manuel Azkue organo jolea.

Organo zikloa hasiko da bihar, Daniel Rothekin

■ Jose Manuel Azkue, Kurt Lueders, eta J. V. Giner izango dira datozen egunetan

Erredakzioa / Donostia

BOST emanaldi izango ditu guztira aurtengo organo zikloak, eta Koruko Andre Mariaren basilikan izango dira ekitaldien hitzordu guztiak, 20:00etan.

Bihar, Daniel Roth musikariak emango dio hasiera. Ch. Widor, eta C. Franck, konpositoreen lanak interpretatzeaz gain, berak egingadako *Euskal kantu herrikoia* lana joko du. Obra hori Donostiako Hamabostaldiak propio okasio horretarako enkarguz eskaturikoa da.

Etzi, abuztuaren 24an, Jose Manuel Azkue organo jole ezaguna izango da Basilikan. J.S. Bach, C. Frank, eta L. Vernie konpositore eta interpretatzaileen lanak joko ditu.

Abuztuaren 25ean, berriz, Kurt Lueders ariko da organoko teklak eta pedalak

astintzen, eta hainbat obra joko ditu. Konpositoreen artean hauek aukeratu ditu Lueders: C. Frank, C. Saint-Saens, E. Vast, Ch. Chauvet, eta S. Rousseau.

Hurrengo egunean, abuztuaren 26an, Josep Vincent Giner izango da organo zikloko protagonista. F. Mendelssohn, R. Shumann, M. Reger eta C. Franck maisuen musika aukeratu du emanaldirako.

Egun, organo joleen esparruan prestijio handikoak dira zikloko parte hartzaileak, baina horren ezagun ez direnek ere izango dute aukera euren abilezia erakusteko. Izan ere, azken eguna ikasleentzat gorde dute antolatzaileek. Oraindik zehaztu gabe dago egitaraua, baina parte hartzaileak izango dira egun inguruan diren ikasketak amaitzen ari diren ikasle prestuenak.